

Aretxabaleta,
1994ko martxoak 10


Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABAleta

TODO POR LA PATRIA

Intsumisioa

- *Maskarada*
- *Kirolak:
Dorletako Ama
Txirindulari
Eskola*
- *Turismoa
promozionatuz*



Izena: Angelines Lopez Lopez
Ofizioa: Angelines dendako dendaria
Afizioa: Kirolak, punta eta gantxiloa
Bizioa: Erretzea
Misioa: Bizi garen baino hobeto bizitzea

- **Armozatu zer?**
- Laranja ura eta gero kafesnea.
- **Bazkalostean zer?**
- Nire lana bukatuta gero, batzuetan paseoa ematen dut.
- **Janari gogokoena?**
- Afaria. Entsalada eta gero edozein gauza. Baina batez ere afaria, lasai egoten naizen momentuetako bat delako.
- **Eguneko momenturik onena?**
- Afalostean. Lasai jarri eta egon.
- **Pertsonarengan zein kualitate baloratzen duzu gehien?**
- Batez ere zintzotasuna eta laguntasuna.
- **Atxabaltan bizitzeko lekurik onena?**
- Nire ametsa Azatzan bizitzea da. Baina gustora nago bizi naizen lekuan.
- **Oporrak itsasoan ala mendian?**
- Biak asko gustatzen zaizkit, batzuetan bata eta beste batzuetan bestea.
- **Denbora librean zer egiten duzu?**
- Gimnasia, irakurketa, punta eta gantxiloa.
- **Afiziorik?**
- Azken aldi honetan irakurketara asko afizionatu naiz. Baina bestela, punta eta gantxiloa.
- **Seme-alaba kopuru ideala?**
- Gustora nago birekin.
- **Atxabaltako alkate bazina, zer aldatuko zen nuke?**
- Zerbitzuak.
- **Zure birtute bat?**
- Birtutetzat zintzotasuna ulertzen bada, horixe.
- **Akats bat?**
- Umore txarra.
- **Gehien gorrotatzen duzuna?**
- Zintzotasun falta eta engainoa.
- **Soziedadean emakumeak sartzearen alde ala kontra?**
- Nik uste dut eskubide berdinak edo antzekoak ditugula. Gainera nik uste dut emakumeak aspalditik gauzak aurrera eramane dituela, nahiz eta beti isilik egin.
- **Intsumisioaren gainean zer daukazu esateko?**
- Ni soldadutzaren aurka nago. Baina intsumisioarena ez dut ondo ulertzen. Baina intsumisioaren alde zerbait egin behar bada, egingo dut.
- **Zer izango litzateke zuretako erregalu on bat?**
- Bakea maila guztietan eta bizitza establea. Bizitza establea ez bakarrik niretako, nik badaukat, jende guztiarendako eskatuko nuke

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zelan ikusiko zenuke beste diskoteka bat Atxabaltan?



Jose Alberto Delgado
(Ikaslea)

Ondo, gabean ibiltzeko ondo ikusten dut. Horrela denbora gehiago eukiko dugu kalean ibiltzeko.



Esteban Gorroño
(Jubilatua)

Garzteendako ondo ikusten dut. Baina gure-tako plazan hobeto ikusten dut.



Lourdes Raso
(Ikaslea)

Nik ondo ikusten dut, nahiz eta dauden tabernekinekin askotan nahikoa izan.



Eskarne Eraña
(Langilea)

Ondo ikusten dut. Jendearen behar bat hori bada, ondo ikusten dut.

KARTAK

Indiatik Ignazio Galdos Zuazuak idatzi digun eskutitza

Jokin:

Mila eta mila esker eman behar dizut, bada orain zuzenki zuen eta gure Aretxagazeta bidaltzen didazuelako; orain arte, Joxe Olabe, nere lengusuak bidaltzen zidan, eta zuek hasi zarete orain lan hori, mesede hori neri egiten.

Bai lehen eta baita orain ere mesede pozgarria. Ba Indiako baztar hauetan, atsegin zait "gure" herri gazeta har-

tzea eta baita ere idakurtzea.

Alde batetik herriko berriak ezagutzen ditut, nere umetako eta gaztetako gorabeherak berbitzen didazute.

Herritik kanpo bizi zarenean esan lezake herriko jokaerak jakitea gehiago gustatzen zaiuzula.

Eskerrak eta zorionak zuri eta zurekin lan egiten duten guztiei, Atxabaltako semeei egiten diozuten mese-

deagatik.

Lur hauetan Aretxabaletako izena ezagutu da, bai hemengo adibasiarrai hori egon zirenean eskeinitako laguntzagatik, eta baita ere Aretxabaletako Hirugarren Munduko taldeak herri hauetan egiten diguten laguntza eta mesede, benetan estimagarri eta haundiagatik.

Danoi mila esker ta beti aurrera Atxabaltako izena toki guztietan maitatua eta estimatua izan

dadin.

Biotzez danoi eskerrak, zuen laguna
Inazio Galdos Zuazua



Ederto pasatu zuten gure jubilatuek Aingeru Guardia egunean. Basotxoko patrioaren eguna ospatu, janari gozogoza Taberna-Berri jatetxean dastatu eta ostean dantza eta dantza. Horrela bai bizi daitekeela!.

Kike Amunarriz
gure artean izan genuen, Udaleko Euskara Batzordeak eskatuta, Siadeco enpresak egin duen azterketa soziolinguistikoaren xehetasun guztiak emateko. Aurkezpenean besteak beste euskararen egoera udal barruan, irakaskuntzan, kalean... aztertu zen.



MASAILARIAK
MASAIK
ZARIAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA
Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

MartiW
DELEJERIA - DITXITEGIA
Mitarte, 16
☎ 79 01 72

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA
CAFES
la Brasileña
Aralar Kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

IBARRA
ESTANKOA
Tabakoa eta
ikasmateriala
Bizkaia, 3
Tfnoa: 79 23 77

Salsa ikastaroa

Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak, oraingo honetan **Salsa ikastaroa** antolatzeko asmotan dabil Atxabaltan.

Ikastaroak maiatzaren 9tik 13ra arte iraungo du.

Ordutegia apuntetan den jendearen arabera erabakiko da, arratsalde edo goizez. 30 lagunendako lekua dago eta apuntetan direnak 3 taldetan bana-

tuko lirateke.

Prezioa 2.000 pezetakoa izango da Kirol-Etxeko bazkideendako eta 3.000 pezetakoa besteendako.


Ordainketa Kutxan egin beharko da, dirua 2020.00057.8 zenbakian sartuz. Bankuan emandako agiria ondoren Kultur-Etxera ekarri beharko da.

Ikastaro honetan parte hartu gura dutenek, Kultur-Etxean eman beharko dute izena eta informazio gehiago gura izan ezker 79 01 05 telefonora deitu dezakezue.

Beraz, badakizue, maiatzean ekintza desberdinen bat egin gura baduzue animatu zaitezte eta apuntatu lehenbailehen.

Udaleko Hirigintza Sailak atxabaltar guztiei jakinarazi gura die, zapatu eguerdian egiten den zakar bilketa, herriko dendentako besterik ez dela. Beraz, arauak errespeta ditzaten eta zakarra bertan utzi ez dezaten erregutzen zaizue.

Domekan, arratsaldeko 7retan, intsumisioen aldeko manifestazioa egingo da. Manifestazioak Arlutz aurretik urtengo du. Animatu zaitezte.



Atxabaltako eskola publikoko ordezkariek bertan izan ziren

Ikastetxe publikoak

Leintz bailarako eskola publiko guztietako ordezkariek, Monterron Jaurerian elkartu ziren, hezkuntz eredu barrien

barri emateko.


Prentsaurrekoan lehen mailako hezkuntzan murgiltze linguistikorako plana garatzen dabilzala

jakinarazi ziguten. Murgiltze plan hau praktikan, osorik euskarazko irakaskuntza izan arren, D eredu ez bezala familia erdalduko umeendako egokituta dago.


Bestalde, eskola publikoetako zuzendariak 2 urtetik 19 urtera arte eskola publikoetan B eta D eredutan ikasi daitekeela adierazi zuten, orain eskola batzuetan A eredu ere badute, eskaintza haundia ez denez, laster desagertuko dela uste da.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



EGUZKI GRAF

Aldizkariak Inpresok Bulegoko materialak

Aretxab. Industrialdea, F-0-4 • Tfnoa.: 79 18 44
Faxa 79 29 41



Deba garaian turismoa promozionatzeko lanean

Bailarako mankomunitateak, Deba Garaian turismoa garatzeko txosten bat atara du, txostenaren aurkezpena martxoaren 3an egin zen.

Txostenak 500 orrialde ditu eta hiru atalatan banatuta dago. Lehenengoa sarrera egiteko erabili dute eta bertan Deba Garaiko ezaugarriak aurki ditzakegu, besteak beste kokapen geografikoa, eskaintza turistikoak...

Bigarren atalean udalerriz udalerriz bizi den egoera aztertzen da eta hirugarrenean eskualdeko izaera azaltzen da, horrez gain, atal horretan dokumentazioa eta argazki desberdinez

hornitutako eranskina dago.

Azterketaren helburuak horrela laburtu daitezke: eskualdean garapen turistikoa lortu eta ezartzeko oinarriko errekurtsioak aztertzea; gaur egun eskualdean turismo arloan bizi den egoera bolaratzea; eta turismoari begira ekin-tza proposamen bat garatu ondorio konkretu eta eraginkorrak atara ahal izateko.

Txosten horretaz gain, logotipoa ere atara dute eta baita katalogo bat ere. Katalogoan Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñatiko he-

rirei buruzko hainbat datu historiko, kultural, eskaintza turistiko desberdinak... topatu ditzakegu.

Denera 64 orrialde ditu eta euskaraz, gaztelera, ingelesez eta frantsesez idatzita dago.

Egileek txostenarekin eta katalogoaz lortu gura duten helburua Deba Garaia ezagutera eraztea da, batez ere, kanpoko turismoari begira.

Orain gure bailaran turismo erlijiosoa eta industrialia ematen den arren, bestelako turismoa erakartzeko egindako guztia Gerora begira emaitza baikorrak lortzea espero dute.

Menopausia eta sexualitateari buruzko tailerrak

Atxabaltako Osasun Zentroaren inizatibaz, 10 orduko tailer bat antolatu da, 45 eta 54 urtera bitarteko emakumeei zuzendua. Tailer horretan sexualitatea eta menopausiaren inguruko gaiak sakonduko dira. Topaketa horien helburua edade horretako emakumeak sexualitatea eta menopausiaren gainean izan ditzaketen zalantza eta arazoak argitzea da. Taldeak 15 bat lagunez osatutakoak izango dira eta hizlaria Begoña Falces, asistentia soziala eta sexologoa da.

Tailerrak apirillean eta maiatzean egin gura dira, hilabete bakoitzean 10 ordu, denera 20 ordu. Egunak zein orduak oraindik zehazteko daude, apuntetan direnen araberako egingo da eta.

Interesatuok, M^oAsun Komadronarekin jarri zaitezte harremanetan, edo bestela 797458 telefonora deitu dezakezue.



Elkarrik deitutako manifestazioa egingo da martxoaren 12an

Elkarri, elkarrizketa eta akordia-aren aldeko giza mugimenduak, manifestazio nazionala egingo du Bilbon martxoaren 12an. La Casillatik atarako da manifestazioa eta isilean izango da. "Elkarrizketa eta distentsioa.. orain dugu aukera" lemapean antolatu da Bilbon manifestazio nazionala. Joan gura duzuenondako autobusa izango da arratsaldeko 3'30etan.

Atxalbaltako Elka-

rriko kideek esan digutenez, manifestazio hori egiteko momentu egokia da herri honek bere norabidea aldatu dezan. Eta seguru daude hori dela gure aukera, eta bakerako bideak gure ekarpenaren beharra duela.

Testuinguru horretan, Elkarrikoen iritziz manifestazioaren helburua, inongo disimulo barik, momentu honen duen potentzialitatea babestea eta erabateko bultzada ematea

da, epe laburrean, distentzio eta elkarrizketa prozesu eraginkorrean izan dezan bukaera. Konbentzituta daude martxoaren 12ko manifestazioa ona izateak funtzio estrategikoa bete dezakeela une honetan bakerako bidean aurreratzeke.

Mezuaren zentzua horrela ulertzen dute Elkarrikoek, "Elkarrizketa eta distentsioa, oraintxe dugu aukera, lehenik ETA eta Espainiako gobernuari zuzenduta dago, baina ez bie bakarrik. Abiapuntutzat hartzen dugun erreflesioan, bakeak denon ekarpena behar du, eta aldeko giroa sortu beharra dago bakerako bidean urratsak emateko. Distentsioa diogunean, esan gura dugu distentsioa enfrontamendu biolentean, baina baita distentsio soziala eta politikoa ere."

"Manifestazioak zein kanpaina osoak izango duen ardatz nagusia, euskal gizartearen mobilizazioa izatea da, eta ez Elkarriren mobilizazioa. Horregatik, manifestazio honetan, ez da sektore bat izango besteari zerbait eskatzen, gizartea izango da agente guztiei eskatuko die-na herriak eta une historikoak behar dituzten urratsak eman ditzaten."

Plenoa

Azken plenoan, hainbat gairen artean intsumisioari buruzko mozio bat zegoen, martxoan zehar Donostiako Entzutegi Probintzian herriko lau gazte intsumisio epaituko dituzte eta.

Mozioak 5 puntu zituen.

1.- Alkatea eta Aretxabaletako Udalbatza herriko Intsumisioen defentsaren lekuko izatea.

2.- Epaketaren kostua Udalak bere gain hartzea.

3.- Gartzelaratutako intsumisio gazte guztiak libre uztearen aldeko jarrera publikoa azaltzea eta Justizi Ministeritzaren aurrean epaiketa hauek salatzea.

4.- Ejerzitoari laguntzarik eman ez eta gazteen izen-hartzeari uko egitea.

5.- Ordezko Zerbitzu Sozialeko postuak ez onartzea eta eurekin zerikusirik duten Intitutzioekin harremanik ez izatea.

5 puntu horietatik 2. puntua izan zen onartu ez zen bakarra, beste guztiak onartu ziren.

PSOEEK mozio horrekin batera, beste mozio bat atara zuen, baina ez zen onartu izan.



Antzerki astea Kurtzebarri eskolan

Antzerki astea martxoaren 21an hasi eta 29ra arte iraungo du.

Eskolaurretik zortzigarren mailarainoko ikasleek antzeztuko dituzte antzezlari desberdinak. Eskolaurreko neska-mutikoei "Zirkoaren" izeneko antzezlana antzeztuko

dute.

Beraz, aste horretan 6'30tatik aurrera Kurtzebarri eskolako neska-mutikoei antzeztuko biderik onena antzeztuko zaizkigu.

Bide batez, aitatu gura dugu, aurrean hainbat gurasok ere parte hartuko dutela "Lan bila" antzezlana antzeztuz.

Bestalde, esan beharra dago, sarrera txiki bat kobratuko dela eta antzerki astea Atxabaltako edozeinendako zabalik dagoela.


Xehetasun gehiago ondorengo egunetan izango duzue, Kurtzebarri eskolako ikasle, guraso eta irakasleen eskutik.

Martxoaren 8an emakumearen eguna.

Emakumeen eguna ospatu zen martitzen mundu guztian. Atxabaltako Tril emakume taldeak ere egun berezi horretarako ekintza batzuk antolatu zituen, Begoña Muruaga kazetaria izan genuen gure artean, "Feminismoa historian" gaiari buruz hitzaldia emateko.

Tril emakume taldeak jarraituz, Tril emakume taldeak euskal dantzak ikasteko ikastaroa antolatu du martxoaren 14, 21, 28 eta apirilaren 11 rako. Orduetgia arratsaldeko 8etatik 9'30ak arte izango da eta ikastaroa Loramendi dantza taldeak emango du, euskal dantzak izango dira ikastaro horretan irakatsiko direnak, besteak beste fan-dangoa, arin-arina...

Izena eman gura duzuen denok Loramendi kultur elkartera zuzendu beharko duzue edo 770970 telefonora deitu ezazue. Izena ematean 500pztan ordaindu behar da.



Bedarretako etxeak ia gertu

Bedarretako etxeak bukatzeko gutxi falta

dute, azken ikutuak besterik ez dira falta eros-

leak bertara bizitzera joan daitezke. "San Migel de Bedarreta" promotora elkarteak esan digutenez apirilaren bukaeran joango da jendea bizitzera. Etxeak prezio onean daudela eta ia denak beteta daudela adierazi digute eta garajekin ere beste horrenbeste gertatzen da, bakar batzuk besterik ez dira falta saltzeko.



Maskarada

Joan zen domekan, Loramendi kultur taldeak antolatuta, maskarada izan genuen Atxabaltan.

Maskarada goizean hasi zen, barrikada batzuekin. Urkulun hasi eta gero herri guztian zehar ibili ziren, herriko plazara heldu arte. Herriko zenbait elkarte parte hartu zuten barrikada


horien antolaketan.

Uratz-alde elkartean ondo bazkalduta gero, arratsaldeko 5etan, plaza egin zuten antzezlanena. Maskarada arratsaldeko 7,30ak inguruan bukatu zen.

Nahiz eta eguraldiak bat ere lagundu ez, jende asko elkartu zen plazan dantzak eta antzezlanak ikusteko.



• Maskadararen antzezlaneko momentu bat.




LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Atxabaltako lau intsumisio epaituko dituzte martxoan: Felix Iñurrategi, Andoni Urzelai, Julen Larrinaga eta Ion Ander Loidi. Hori dela eta, elkarrizketa egin diegu eta baita antimilitarista taldeko partaide bati ere.



"Intsumisioa estrategia bat da"

• **Zer da intsumisioa?**

• Talde antimilitaristek orain dela asko sortu zuten soldadutzaren aurkako burruka. Gizartea soldadutzaren kontra jarten hasi zela ikusi zuenean gobernuak, 1982an lege bat atarazuen hori denoriarauzteko.

Lege horren arabera, ni objetore deklaratzeko naiz eta kontseju horrek erabakitzen du, ni objetore naizen ala ez. Hori estatuaren kontrol izateko sortu zen; soldadutzaren kuestionamendua nolabait mozteko.

Horri aurre egiteko, talde antimilitaristek intsumisioaren estrategia atara zuen. Estrategia horren arabera intsumisioak soldadutzara joateari eta ordezkotzeri

tzuz soziala egiteari uko egiten diote.

• **Noiz hasi zen intsumisioa eta zergatik?**

• Orain dela 5 urte. Lehenengo objetoreak 70. urtean edo hasi ziren. Objetore horien soldadutza ez egiteko arrazoiak hauek izan ziren; desmilitarizazioa, ejerzitoak ez zuela funtziorik, ejerzitoak gizartean mailakatzeak sortzen zituela,.... Derrigorrezko soldadutzaren aurkako burrukak egundoko ohiartzuna sortu zuen gizartean. Mugimendu barri hori berehala zabaldu zen eta gizartearen aldetik laguntza haundia izan zuen. Laguntza hori ahultzeko gobernuak lehen aitatu-tako legea atara zuen eta lege horren arabera objektoria arautua geratzen

da. Gobernuak dio nor den objetore eta nor ez. Objetoretzat onartzen denari ordezkotzeri soziala ezartzen zaio. Objetoretzat onartu ez denak, barriz, soldadutzara joan behar du. Horri erantzuteko sortu zen intsumisioa.

• **Momentu hone-tan zela dago egoera?**

• Intsumisioa, lehen aitatu dudanez, orain dela 5 urte hasi zen. Orditik gobernuaren asmoa, jende gaztea intsumisio ez izatea izan da. Hasieran, batzuk soldadutzara ez zoazela ikusita atxilotu egiten zituzten, horrela mugimendua geldiarazi gura zuten. Honek ez zuen funtzionatu, jendeak intsumisio egiten jarraitzen zuen eta.

Hori ikusita, gober-

nu mugitzen hasi zen eta epaiketak egiten hasi ziren Nafarroan. Gaur egun, 110 lagun daude kartzelan. Nafarroaren ostean, Gipuzkoan hasi ziren eta apirila bitartean 75 epaiketa egin behar dira.

• **Zer gertatzen da epaitutakoekin?**

• Epaitu eta hama-bost bat egunera sententzia ematen da. Sententzia hori urtebete baino gutxiagokoa bada, ez zoaz kartzelara, bestela barrura.

• **Zergatik batzuk urtebete eta beste batzuk gehiago?**

• Hori ere diferentzia bat egiteko modua da, intsumisio guztiak ez doaz kartzelara, gutxi batzuk baizik. Horretaz gain, kartzelara sartzeko jende kopurua mu-



Intsumisoek astean zehar, gurasoei zuzendutako hitzaldiak eman zituzten

gatu egin behar da, bestela kartzelak intsumisoz gainezka egongo lirateke, Gipuzkoan 800 intsumiso gara.

Horrela, zigor diferentek ematen dituzte. hoguei epaiketatatik bost kartzelara joango dira. Urtebete baino gutxiagoko zigorra dutenek ez dute kartzelara joan beharrik, libre geratzen dira; baina, intsumisoak, horren aurrean, ez dute sinatzen sinatu beharreko papera, eta kartzelan sartzen dituzte. Bestela, hirugarren gradua ematen digute, hau da, gaez kartzelan eta egunez kalean.

Hori horrela, talde antimilitaristek hirugarren gradua ez onartzea eraba-

ki dute. Ez goaz gaez kartzelara, beraz delito barri bat egiten dugu, eta barriri bigarren graduan sartzen gaituzte.

• **Ze desberdintasun dago intsumiso eta objektoreen artean?**

• Objektore zerbitzu soziala egitea onartzen duena da.

• **Intsumisoak zergatik zaudete zerbitzu sozialaren kontra?**

• Gure helburua soldadutzak kentzea da. Zerbitzu soziala, soldadutzara joan gura ez zuenari zigortzat ipintzen zitzaion. Soldadutzak baino lau hilabete gehiago irauten du eta gainera lan postuak kentzen ditu. Ideologikoki soladutzaren modukoa

"Intsumisoa gizarte guztia da, ejerzitoaren kontra dagoen jende guztia"

da, guardiak daude, araudiak... Gure burruka ejerzitoa eta soldadutza kuestinatzea bada, beste hori ere kuestinatu egin behar-ko genuke.


Gure borroka ez da soldadutzatik libratzea. Nire burruka soldadutza eta ejerzitoa kentzea da, zentzurik ez daukalako. Gainera nik ez dut uste antimilitarista izatea intsumisioen arazoa besterik ez dela. Intsumisioen arazoa da zuzenean dago-
kigulako, baina nik uste dut ejerzitoen aurka dagoen jende guztia dela intsumiso; bai emakumeak, bai helduak...

Intsumisoa, esan dezakegu, gizartearen gehiengo bat dela.

▲ Zergatik zara intsumisoa?

▲ Zein da zure egoera?

Andoni Urzelai



▲ Nik uste dut ejerzitoak ez daukala inolako etorkizunik, inolako logikarik gaur egungo munduan.

Burruka horrek askok pentsatuko dute utopia dela, ejerzitoa beti egongo dela. Hori gezurra da, gizartearen gehiengoa kontrari jartzen bada posible da. Ni horretxegatik sartu nintzen burruka horretan. Nik aukera euki nuen soldadutza ez egiteko eta ez naiz joan, eta horrela jende asko dago.


▲ Nik martxoaren 9an daukat epaiketa, hamabost bat egun barru sententzia emango didate. Hamar egunetara "auto de prisión" eta gero kartzelara.

Jon Ander Loidi


▲ Ni beti egon naiz soldadutzaren kontra eta momentua heldu zitzaidanean ez nuen zalantzarik izan, eta zuzenean intsumiso egitea erabaki nuen. Nik uste dut ejerzitoaren eta soldadutzaren aurka joateko modu bakarra dela.

▲ Martxoaren 23an daukat epaiketa. Epaiketa boskarren salan daukadanez urtebeteko zigorra jausiko zait. Urtebete jausi ezker, baldintzapeko askatasuna hartu ala ez erabaki beharko dut.

Hori denori talde lana izango ez balitz, izenpetu egingo nuke eta libre geratuko nintzateke. Baina nire arazoa bakarrik ez denez, momentua heltzen denean erabakiko dut, oraindik ez dakit zer egingo dudan, baina seguraski ez dut izenpetuko.



Julen Larrinaga



▲ Intsumisoa naiz soldadutzaren aurka nagoelako, baita ejerzito espainolaren aurka ere. Ni guzti horren aurka nago.

▲ Nik martxoaren 22an daukat juizioa, baina ez naiz aurkeztuko. Orduan "busca y captura"-n jarriko naute. Harrapatzen nautenean kartzelan sartuko naute. Kartzelan juizioaren zain egongo naiz eta gero juiziora.

Denera lau intsumiso dira epaitu behar dituztenak. Baina ez dugu lortu Felix Iñurrategirekin harremanetan jartzea. Artikulu hau ateratzen denerako Andoni eta Felix epaituta egongo dira.

Seiluak kolekzionatzea du gustoko Gotzone Güemesek, horixe da bere afizioa. Leku askotako seiluak ditu bere bilduma berezian besteak beste Europako ia herrialde guztietakoak, Amerika, Asia eta Afrikako apur batzuk ere bai.



Gotzone Güemes, seiluak batzen

• **Noiz hasi zinen?**
• Duela hamar bat urte hasi nintzen.

• **Zergatik hasi zinen?**

• Batez ere atentziona deitzen zidatelako horrelako gauza txikiak. Gainera, eskolan irakasle batek etxean geneuzkan seiluak herrialde behartsuetara bidaltzeko esaten zigun, diru laguntza moduan. Beraz, guk klasera etxean batutako seiluak erooten genituen eta maisua Kongoko Errepublikara, Hego Amerikara... bidaltzeaz arduratzen zen.

Niri ideia asko gusatu zitzaidan eta nik ere horrelako zerbait egitea pentsatu

nuen.

• **Zela egiten da seilu bilduma?**

• Seiluak batzen hasi nintzen, lagunei eskatuaz eta atzerrira joaten ziren ezagunei bertako seiluak ekartzeko eskatzen nien. Seiluak kolekzionatzeko modu desberdinak daudela, batzuk animalien irudiak dituzten seiluak besterik ez dituzte batzen, beste batzuek Europakoak besterik ez... niri, barriz, leku guztietakoak eukitzea gustatan zaizkit.

• **Ze egiten da seiluak lortzen dituzenean?**

• Egin behar den lehenengo gauza seiluak klasifikatzea da. Hori

norberak bere gustoaren arabera egiten du. Nik herrialdeka sailkatuta dauzkat, baina ezagutzen dut jendea motibo desberdinen arabera sailkatzen dituen.

• **Zuk zela lortu dituzu seiluak?**

• Lagunei edo ezagunei eskatzen diet, kanpora joaten direnean figura edo bestelako opari bat ekarri beharrean seiluak ekartzen dituzten.

Seiluak ekartzeko gauza erosoak dira, txikiak, ez oso garestiak eta edozein lekutan ekarri daitezkeenak.

• **Ze lekutako seiluak dituzu?**

• Leku askotakoak ditut, Europatik Alemania, Polonia, Ingalterra,

Frantzia, Portugal, Turkia, Espainia, Suiza, S u e z i a , Dinamarka... Asiakoak ere mordoskatxo bat ditut eta Hego zein Ipar Amerikakoak ere bai. Denera nire kolekzioan dauzkadanak, 1500 izango dira

Gaur egun seiloak lortzea askoz ere samurragoa da; Gasteizen, adibidez, denda bat dago honetan espezializatua eta bertara joan zaitezke falta zaizkizunak lortzeko.

• **Lan handia ematen du seiluak sailkatzeak?**

• Egia esateko ez, arratsalde bateko gauza izaten da. Behin egin ezkerero nahikoa da.



Dorletako Ama Txirrindulari Eskola denboraldi barri baten aurrean

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak, 1994-95 denboraldirako aurkezpen ofiziala egin zuen otsailaren 26an. Dorletako Santutegian meza eman ostean Gure- ametsa jate txera joan ziren aurkezpen ekitaldirako.

Denera bost talde desberdinek osatzen dute Dorletako Ama eskola: infantil mailan 5 txirrindulari daude, talde honetako kirol zuzendariak Jose Galan eta Ricardo Gomez dira eta patrozinatzailea Arrasate Kirolak. Lehen mailako kadeteen artean 10 txirrindularik osatzen dute taldea, kirol zuzendaria Luis Sebastian da

eta patrozinatzailea Alejandro Altuna (J.M.A). Bigarren mailako kede teetan 7 dira bertan dauden txirrindulariak. Kirol zuzendariak, Jose M^a Roldan eta Agustin Sedano eta patrozinatzailea Ford Mugarri eta Sport Sasiain. Lehen mailako jubentilei dago kienez, 14 txirrindulariz hasiko dute aurtengo denboraldia, zuzendariak Josu Estevez eta Ane Guede dira eta patrozinatzailea Fagor. Eta bukatzeko bigarren mailako jubentiletan 10 txirrindulari daude, Pedro Urain dugu zuzendaria eta babeslea Caldereria San Pedro.

Izendatutako babes-

leez gain ezin dugu airtu barik utzi Pates Zubia, Gure-Ametsa jate txera eta Atxabaltako semea eta munduko atezain onenetakoa den Andoni Zubizarreta, horiek ere euren lagun-

tza eskaini diete eskolakoiei.

Eskolan dauden talde desberdinei errepaso bat eman ondoren zuzendari batzordea horrelaxe geratu da egitura-tuta: Zuzendaria; J.M Roldan. Zuzendari orde-a; Jesus Garai. Idazkaria; Alberto Altube. Bokalak; Rafa Antia, Fidel Balgañon, Josu Estevez, Jose Fritos, Pedro Urain, Agustin Sedano, Luis Sebastian. Kirol medikua Alberto Garai izango da eta pres-taketa fisikoen ardurua hirukote batek izango du, Alfredo Meabek, Juan Ignazio Errastik eta Alex Iturbek.

Zorte on denoi bai errepedietan eta baita lasterketa desberdinetan ere.



Santa Ageda eguna pasatu berri dugu, eta berotasunak bere zerera etorri ondoren, ez legoke sobra erreflexio bat, azalekoa bada ere.

1970. urtean eta euskal zaletasun garbitzaile baten eraginez, urte hartako Santageda mutilak, ordurarteko Santa Ageda kantua aldatu egin zuten.

Lehenagokoaren testiguak asko



Santageda mutilak eta kantu aldaketa

izanagatik batzuk aukeratu ditugu, eta partaide batzuek esan digutenez letratik aparte beste bitxikeria bat ere aipatu beharko litzateke.

Lehenagokoek, domekatak txokolate merixendia tabernan egin arren, eguneroko bazkari-afariak etxe partikular batean egiten zuten. Bertakoekin apopilajea kontratatu eta aurrera.

1959. urteko Santageda mutilak Casto Mendieta eta Sabina Garmendia familiaren etxean egin zituzten euren bazkari eta afariak.

Argazkian, lehenago tren estazinora zihoan bide gurutzean, orduko Santageda mutilak eta familiakoak.

Ezkerretik hasita eta zutik: Casto Mendieta, Pablo Bengoa, Sabina Garmendia, Dominika Mendieta, Alberto Uribeetxebarria, Jose Jabier Urzelai, German Gonzalez, Antonio Arbulo, Juan Akizu, Markelin Mendieta, Ines Mendieta, Gabino Herrasti, Jose Luis (maixua), Karmelo Olabe, Mariasun Mendieta, eta Angel Osinaga (maixua). Makurtuta: Tomas Iturrikastillo, Jose Antonio Aranburu, Xabier Urzelai, Emiliano Altube eta Alejandro Urzelai.

Datozen Santageda mutilak izango dute non aukeratu. Hona hemen lehenago bertsoen zati batzuk.

Nere kristauak badakizute
nor degun Santa Ageda.
Lege zaharreko usadiuak
- kantuan gatoz atera.
Martiriak esplikatzeko
lizentziari ote da.
Sentimenturik izaterikan
hemen ez degu espera.

Aditurikan jende gaiztoak
heltzen diote berbatik,
kutxiloakin ebakitzeko
bere bularrak ondotik.
Gorputz guztia estalirikan
odolez bere petxutik
probidentzi etzuan falta
Jaingokoaren aldetik.

Gobernadore traidore horrek
sententzia du ematen.
Plazan hiltzera eramateko
ez baldin bazen mudatzen.
Santa Agedak erantzun zion:
"ez naiz batere bildurtzen.
Zuen idolo Jaungoiko faltzo
etzait bat ere gustatzen."

Adios bada jende noblia
horra kantatu bizitza.
Borondaterik baldin badago
limosna biltzen gabilta.
Limosna era hartu degu eta
orain abia gaitian.
Adiosikan ez degu eta
agur ikusi artian.

Sariak bai, baina ez dugu zigorrik gura



J.J. Aretxaga

Mota guztietako sariak daude, kirolariari ematen zaizkienak, literatur sariak, baina honako hau diferentea dela esango nuke. Itxura denez, enpresarioei ere ematen dizkiete sariak. Lehengo egunean, zapatuan, Gipuzkoako "camara de comercio" delakoak Atxabaltako enpresa gizon bati eman zion saria. Juan Mari Uzquidunek Gizpuzkoako Urteko Enpresaria izeneko saria jaso zuen. Juan Mari donostiarra da, Igeldokoa hain zuzen ere, eta urte askotan Fagor-en lan eginda gero, orain dela lau bat urte edo Coprecira etorri zen, eta bertako jarentea da. Saria inportantea da eta pozgarria da herriko enpresa batek jaso izana.

Herriko enpresa batetik eskola batera pasatuko gara. Martxoaren 21ean hasi eta 29ra arte, Kurtzebarri Eskolan antzerki astea antolatatu dute. Hori beharbada ez

da nobedadea, baina aurten guraso-
ok ere parte hartuko dugu. Martxoaren
29an "Lan bila" izeneko teatroa an-
tzeztuko dugu. Titulua irakurrita gero
konturatuko zineten gaia gaur egune-
koa dela, lan bila ibili eta gero topetan
dugun jakin gura baduzue, badakizue,
joan eta ikusi. Denera hamabost bat
aktore gara eta beste horrenbeste de-
koratuak prestatzen.

Espektakuluekin jarraituaz, poli-
ta izan zen lehengo eguneko maskara-
da, ondo antolatutakoa gainera. Buha-
miekin edo ijitoekin errebaso ederra eman
zioten herriari, herritar askoren ize-
nak aitatu zituzten eta Bedoñarekin
ere akordatu ziren, guk atxabaltarrok
ia ahaztuta daukaguna. Gainera, pu-
bliko artean Aitor Sarasua ikusi
nuen eta itxura ederra zuen. Berri
pozgarria.

Nire garaian ez zegoen horrelako-
rik eta soldadutza Madrilen egin behar
izan nuen, hogeitau gutxiago
banitu...Gazteek asmatu duten intsu-
misio hori gauza ederra da, beha-
rrezkoa. Hemendik animoak bidali gura
dizkiet martxoan epaituko dituzten
herriko lau intsumisoei: Andoni Ur-
zelai, Jon Ander Loidi, Julen La-
rrinaga eta Felix Iñurrategiri.

Aretxagazetako bazkide izan gura baduzu

deitu: 79 01 05

Arratsaldeko 3retatik 7ak arte



SARIA: k-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

**Ze izen du argazkian ageri den
baserriak?**

- ▼ Erantzun guztiak ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- ▼ Aurreko zenbakiko erantzuna: Bolina baserria.
- ▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea **PAULO ANTXIA. Zorionak.**

Erantzuna:.....

Izen-abizenak:

Helbidea:.....

Tfnoa:.....

11 EGUAKOTXA

• Zaraia Mendi Taldearen akanpada, martxoaren 11, 12 eta 13an.

13 DOMEKA

• Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: **Arlutz-Andarto-Elorretako Haitza.**

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Uribarri Ganboa-Legutiano-Otxandixo-Zubizabal-Ubidea-Legutiano-Uribarri Ganboa-Aretxabaleta.** (64Km)

• Futbol partidua: **U.D.A-Lagun onak C.D.**

12 ZAPATUA

• Gaueko 10etan Zarai zineman "UN MUNDO PERFECTO" filmea.

• Arratsaldeko 4,30etan "LAS AVENTURAS DE HUCLER-BERRY FINN" eta 7etan "UN MUNDO PERFECTO" filmeak zaraia zineman.

19 ZAPATUA

• Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: **Lizargarate (Eskolarteko ibilaldi neurtua).**

• Arratsaldeko 4,30etan, 7etan eta 10etan Zaraia zineman "PARQUE JURASICO" filmea.

20 DOMEKA

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Uribarri Ganboa-Aroia-be-Durana-Gasteiz-Arabako Aretxabaleta-Gasteiz-Durana-Aretxabaleta.** (68 Km)

• Arratsaldeko 4,30etan eta 7etan, Zaraia zineman "PARQUE JURASICO" filmea.

ARETXAZOKA

Lana

✓ Edozein mota-tako lanak garbira pasetan ditut ordenagailuan. Interesatuak deitu 79 77 59 telefono zenbakira eta Fernandez galdetu.

✓ Zure aulkia hondatuta baduzu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Deigun 79 15 96 telefonora.

Etxebizitza

✓ Etxe bat alokatzen da Atxabaltan, interesatuak deitu 79 29 19 telefonora.

✓ Etxebizitza bat alokatzen da. Interesatuak 79 46 25 zenbakira deitu.

✓ Pisu bat alokatuko nuke. Interesatuak 71 47 10 zenbakira deitu.

Etxebizitza

✓ Pisu bat saltzen da Lausita kalean. 90 m2 ditu eta garajea ere. Interesatuak 8etatik aurrera 79 86 71 telefonora deitu.

✓ Pisu bat alokatzen da Aretxabaletan. Interesatuak deitu 79 40 19 telefonora.

Denetarik

✓ Renault Twingo barria prezio onean saltzen dut. Ez dago matrikulatua. 79 65 00 telefonora deitu.

✓ Karhu markako txamarra urdin bat galdutu zitzaidan asteazken 23an. Topatu duenak Arexagazetara ekarri dezala edo 79 01 05 telefonora deitu.

SAGASTA
ELEKTRIZITATEA
 Elektrogailuak
 Elektra - instalakuntzak
 Otalora, 14
 ☎ 79 16 10

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN
 MANTEKA
 ANAIK

ANGELINES
 Autozerbitzua

 Mitarte, 16
 Tfnoa: 79 61 42


ITURGINTZA
JJ
 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

LEIBAR
 ARRAINDEGIA

 Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
 ARETXABALETA

ARLUTZ
 TABERNA
 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

EXPRESS
 AKEITEGIA
 Santa Kurtz, 16
 Tfnoa: 79 23 43

T X I L A R R A

ELIKADURA BEREZIA
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15
 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28
 ARETXABALETA

RKLU
 INDUSTRIA
 HORNIKUNTZAK
 URKULU, S.A
 Mitarte, 23
 Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA
 KLINIKA DENTALA
 Otalora, 18 - 1. D
 ☎ 79 93 55

IZOTZ
 TABERNA
 Mitarte, 16
 ☎ 79 01 72

Mobiliario
ARENZA
 ALTZAIURUAK
 DISEINUA
 APAINKETA
 Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

LASA-AGUILERA
 Aholkularitza
 Andra Mari Auzunea,3
 ☎ 79 29 26
 ARETXABALETA

ARETXABALETA
 ITURGINTZA
 Durana, 16
 Tfnoa: 79 17 53
 ARETXABALETA

OSKAR
HARAGITEGIA
 Loramendi, 1
 ☎ 79 71 69
 ARETXABALETA

ANDONI ALTUBE
ELEKTRA
 INSTALAKUNTZAK
 Durana, 36
 ☎ 79 10 60

ANEK BAI JAKIN!

VI



HEZIBIDE (94)